

Bilbon, 2016ko uztailaren 1ean

Lagun maiteok:

Eskutitz honen bidez, EGK-n sartzeko eskaria egiteko bete behar duzuen inprimakia bidaltzen dizuegu. Bete ondoren guri itzuli beharko diguzue. Inprimaki honekin batera, 6-I-86.eko Maiatzaren 27ko Legea, Kontseiluari sorrera ematen diona, eta 162-1.986.eko dekretua ere bidaltzen dizkizuegu. Hauetan EGK-n sartzeko eskatzen diren betebeharrak biltzen dira.

Aipatutako inprimakiaz gain, hurrengo dokumentuak igorri beharko dizkiguzue:

- ◆ Idazkariak edo lehendakariak izenpeturiko ziurtagiria, inprimakiko datuak egiazkoak direla esanez.
- ◆ Elkarteko kideen edo honek zerbitzuak eskaintzen dizkien pertsonen kopuruaren ziurtagiria, idazkariak edo lehendakariak izenpeturik
- ◆ Elkartearen erroldako inskripzioaren fotokopia.
- ◆ Elkartearen estatutuen fotokopia.

Halaber, jakin behar duzue EGK-ren Batzorde Iraunkorrak ezin duela zuen sarrera erabaki, baizik eta EGK-ren Batzarrak erabakiko duela. Batzar honetan Batzorde Iraunkorrak jasotako dokumentazioa ontzat ematen badu, gonbidatuak izango zarete. Batzarrak zuen eskaria onartu ondoren, gonbidatuak izateari utziko diozue eta eskubide osoko elkartea izango zarete.

Zalantzaren bat izatekotan, deitu ezazue (94) 443.61.43, (943) 42.97.67 edo (945) 22.06.01 telefonoetara, atseginez egingo dizuegu eta harrera.

Besterik gabe, jaso ezazue agur bero bat.

*Maialen Olabe*  
*(EGKko Presidentea)*

OHARRA: Prozesua aurrera doan bitartean, gertatzen den guztiaren berri emango dizuegu.